



[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

590. zkia.
XIV. urtea
2006ko azaroaren 3a

Elur Arrieta, perkusio jolea

**«Perkusioaren mundu zabalean
gauza asko ditut ikasteko»**



Krabelin

HOTELA - JATETXEA

- 2 Suite jakuziarekin
- 4 Gela hidromasajearekin
- 1 Gela helbarrituentzat egokituta

Ardo eta ehizaren arteko Maridajearen III. Jardunaldiak

250 pertsonentzako aretoa
Era guztietako ospakizunak

Gela bikoitza (denboraldi ertaina) 60 €
Eguneko menua 17 €
Karta 30-36 €

☎ 943 202 727 • FAXA 943 208 991
Arrate auzoa, z/g • 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

MARIDAJE

ENTRE CAZA y VINOS



DENBORALDIKO SUKALDEA

Jon Odriozolak zuzendua
Berezitasunak
GARAICO EHIZA





ALAITZ VIVES

Hegohaize ilunabarra hirian. Jendea kalean. Tartean oraindik ere sandalia eta praka motxak soinean dituen turista des-pistatua.

Tokiz kanpo dirudi, ala? Ez bigarren be-giratuan begiratu ez gero, ez da bakarra eta.

Eta lekuz kanpo al dago ba? Praka motxak eta *leggingsak*, laruzko bota beltz puntadunak; praka bakeroak boten barru-tik, noski. Hego haizea da akaso tokiz kan-po dagoena.

Kale peatonalizatuetao kaos organi-zatiboan hala nola aurrera egiteko ahale-gin nekagarrian ari naizela... stop.

Une batez, kaosak badu epizentroa. Bere onetik ateratako ahotsa. Begiak za-bal-zabalik dituzte; elkarki begira. Kopetak elkartuta. Ama eta bi urteko mutikoa. Ama tente, semearengana makurtua. Mutikoa *kotxesillan* eserita. Esaldi bat: "vete a tomar por el culo". Stop.

Isiltasuna gailendu zaio kaosari. Stop. Mutikoa negarrez hasi da. Play.

Berriki Eduardo Punset zientzia dibul-gatzaileak elkarrizketa batean esan-(omen)dakoak irakurri ditut. Gizakia omen, sentimendu nahasiak dituen hominido ba-karra.

Maitasuna eta gorrotoa. Gehien maite duena du begien aurrean. Eta hari egin dio min. Gorroto du eta. Eta ez da zoroa. Alain. Ala?

ZOZOAK BELEARI...



ALAIN ULAZIA

«Gizakia omen,
sentimendu
nahasiak dituen
hominido bakarra»

ALAITZ

«Txerria gizakia
ez bada, zergatik
ez da hiltzen
duintasunez?»

ALAIN

Halere, nahasmenak nahasmen, su-gandila handikoteak planetan nagusi izan ziren denboraren ehunen bat ere nagusit-zan ez daramagun hominidook Santo To-masetan eta Mendaroko Kontsezio Azo-kan txistorra soberan izaten dugu, Alaitz.

Badira bi txerri ez hain urruneko base-ri batean. Bi txerri kurrin-kurrin.

Bati bi telediarixo geratzen zaizkio bai-na.

Zapatuan lotu, zintzilikatu, gorputzaren lau puntu kardinaletarantz "Braveheart"en antzera tenkatu, gorputza odol itsasoan ainguratzeko gakoa zintzurpeko haragitan sartu burdin eta haragiaren arteko muga zehatzean nerbioak zanpatuz, lepoa ireki ganibetaz, eta kurrixkak, kurrrrrrrixk, poli-ki-poliki odolustu urdaiazpikoa larregi ez belzteko, kalitateagatik; poliki-poliki odol-lak bizia eroan.

Eroan du.

Azken dardara batzuk.

Txerriboda txo.

Enpatia ariketa bat eginez, txerriaren gorputz-arimaren baitan sar bedi irakur-lea, eta zu ere bai Alaitz.

Txerrikafazio bat alegia.

Norbera txerrikafatuta galdera filosofiko fundamentalak emetzen da gure gogoan: txerria gizakia ez bada, zergatik ez da hiltzen txerriaren bat behintzat duintasunez, is-kanbilarik atera gabe, noblezia, pleitesia-rik gabe?



GIZAKIA DEN BEZALAKOA DA;
GAUZA EZ DA ALDARAZTEA, EZAGUTZEA BAIZIK



Gustave Floubert

Morterika bizirik, industrialde gehiago ez!

Ezkutitz honen bidez herritarrei Morterikako ingurune naturala babesteko hartu dugun erantzukizun sendoa adierazi nahi diegu.

Ez zaigu iruditzen beharrezkoa denik Morterika bezalako ingurune zoragari bat txikitu eta interes kapitalisten esku uztea (PNV). Herrian industrialde nahikoa dugula denok dakigun gauza da eta Morterika bezalako guneak gutxi gelditzen zaizkigu Elgoibarren: (baserriak, etxe okupatua, gaztainondoak, haritzak, pagoak, pinuak, errekatxoak, erreka, iturria eta ez ahaztu animaliak, noski).

Amalurraren defentsan eta herritarron bizi kalitatearen alde borroka egingo dugula adierazi nahi dizuegu, Morterikako ingurune naturala babesteko indarrak metatuz eta beraren aldeko erresistentzia borroka indartzeko asmoz.

Nazkatuta gaude boteredunek eta udaletxeak jarraitzen duten programarekin beraien poltsikoak betetzeko herritarren ongizatearen aurkako neurriak hartzeaz.

Besterik gabe aio. Morterika bizirik! Industrialde gehiagorik ez!

MORTERIKA BIZIRIK PLATAFORMA

Elgoibarko arazoak?

Pare bat urte inguru izango dira asteburuetan zuen herrira etortzen hasi nintzela. Hasiera-hasieratik iruditu zitzaizkidan xebreak eta bitxiak herri honetan daukazuen *arazoak* eta eztabaidarako gai batzuk. Elgoibarrera iristean bat, Madalara sartzera *Rotonda Einbiou* pankarta ikusi nuen. Ordura arte, ez nuen sekula pentsatuko errotanda bat arazoa izan zitekeenik. Gero, eta honekin bai aluzinatu nuela, zoriarekin *merkadilloaren* gaiarekin topo egin nuen. Arazo honekin astero-astero egiten nuen topo, eta oraindik sua itzalita ez dagoela egingo nuke apustu. Eta merkadilloaren zaratak isildu samartuta daudenean, elizako kanpaiak hasi dira zarata batean. Kanpai-hotsen aldekoak eta kontra-koak, kasu honetan ere. Eta Parrokoa zer egin asmatu ezinik dagoen honetan, Udaletxe azpian ireki berri duzun arkuarenean polemikarako gaia dela ikusi dut **BARREN** astekarian.

Asteburua zuen artean pasa eta domeka gauean etxerantz noanean, askotan zera pentsatzen egoten naiz: *"Elgoibarko arazoak horiek badira, ez dira gaizki bizi herri horretan!"*

M.O.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarzteak: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren


Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR

943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publikitateak: 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga
PUBLIZITATEA Eider Iriando, Amaia Erkizia **MAKETATZALEA** Jaione Unanue
KOLABORATZALEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **San Rokeko futbol kantxa beti autoz beteta egoten da:** “Ez dago eskubiderik. Badakigu herri honetan autoak aparkatzeko arazo handia dagoela, baina futbol kantxa batean aparkatzea ez zaigu logikoa iruditzen. Nola jokatuko dugu futboleak hanbeste kotxerekin? Gainera, autoren bati kristala puskatzen badiogu, errua gurea izango da! Udaltzainak San Rokera ere igo behar lirateke isunak jartzera”



• **Herri guztia txakur kakaz beteta dago:** “Lotsagarria da. Herriko berdegune guztiak, dauden apurak, txakur kakaz beteta daude. Merkatu Plaza atzeko zubian egunero egoten demaseko kaka piloa. Ez dago eskubiderik. Eta txakurrak ez dira errudunak, jabeak baizik. Bestalde, Urasandiko bizilagunek esan digutenez, txakur zaunkekin ezin dira bizi. Gero eta txakur gehiago dago auzoan, eta jabeek kontuan hartu beharko lukete gainontzeko bizilagunei sortzen dizkieten arazoak”.

• **Umeek harriak botatzen dituzte Gabriel Krutzelegi atzeko pasialekura:** “Pasiarako gune egokia dago Gabriel Krutzelegi atzean, eta jende asko joaten da umeekin, baina gurasoek ez dituzte umeak zaintzen eta nahi dutena egiten dute. Harriak bota, kaka eta pixa egin... Umeak apur bat zaintzeko eskatu nahi diegu”.



• **Erretxindiko bizilagunek iskanbila eta zarata ugari jasan behar izaten dituzte:** “Gure etxe azpian 3 gazte koadrilek daukate lokala eta sekulako zarata egoten da. Gavean motorra, autoa edo musika zarata handiak jasan behar izaten ditugu, eta asteburuetan, dena zikin-zikin uzten dute. Botaka, txiza eta kaka usain handia egoten da. Sinadurak bildu ditugu, udaltxean salaketa jarri dugu, baina Udalak ez du ezer egin. Lokal barruan koltxoi eta sofa zaharrak dituzte, gainera. Egunen batean lokalen batek su hartuko ote duen beldur gara”.

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Saileko Zuzendaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN Luma

Txokolatezko pastela

Behin eta berriz entzun izan diot lagunari txokolatearen die-ta dela eraginkorrena. Triste zaudenean, begiak urez beteta daudenean, hilekoa duzuneko egunetan... afrodisiakoa eta estimulantea. Zer hobe txokolatezko pastela baino? Gaur, tristuraren hegaletan hasi dadila txokolatearen mundua... "chocolate".

Txokolatezko hiru ontza hartu eta beraiei so jarri naiz. Hiru ontza eta hirurogeita hamabost gramo. Mendaroko txokolate beltzean gelaxkak ikusten ditut. Badirudi gelaxka bakoitzak hitz bat duela ezkutuan, ezkutuko hitza...

Txokolatea lapikoan jarri, esne pixka bat gehitu eta egurrezko goilareaz irabiatzen ari naiz. Irabiatu, goxo... Txokolate beroaren usaina zabaldu da sukalde guztira eta udazken iluntzetako euri arratsak etorri zaizkirit gogora.

Bizkotzoko opilaren gainera txokolate beroa isuri dut. Leun eta maitekiro zabaldu da olaturik gabeko marea balitz modura... Mediterraneoko marea barea, korronte gutxiduna, epela...

Epeltasun horretan, usain goxo horretan... lasai sentitu naiz. Afrodisiakoa edo bizigarria. Apika, plazer hutsa.

Maialen Olazabal

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ARANTZA IRURETAGOIENA

IRIONDO – ALTZARI
DENDAKOIA

Altzari klasikoak, banguar-distak ala minimalistak?

Estilo guztiak ditut gustoko. Altzari bangoardista eta klasiko

batzuen konbinaketa ere polita geratzen da.

Zein da egungo tendentzia altzarietan?

Estilo garaikideak, nagusi izaten jarraitzen du. Klasikoak ere, bere bezero leialak ditu.

Altzari batentzako egur on bat?

Intxaurrondoa. Exotikoagoen artean, berriz, ebanoa edo palisandroa.

Zein tonalitate aukeratuko zenuke etxe bat margotzeko?

Kolore abanikoa handia da. Egundotan tonu neutroak daude: zuriak, kremak, marroiak, beltzak.

Erosotasuna, modemitatea ala kalitatea?

Erosotasuna.

Elementu dekoratzaile ezinbesteko bat?

Ispilu edo koadro bat.

Etxe bat dekoratzeko kontuan eduki beharreko aspektuak?

Etxearen orientazioa, banaketarako dagoen espazioa, argiztapena eta kontsumitzailearen beharrak.

Inoiz ikusi duzun altzaririk ederrena?

Intxaurrondozko armairu bat, egur mota desberdinez osaturiko marketeria lana zeukana.

komikia

Hil da gero...



Hildakoari hanka bat falta zaiola konturatzen direnean, inork ez du sinistuko gaubelan jarri duzuna "Santu hezurrak" direnik.



Kokoe 076

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

«Emakumiak erretzen»

Ni ez naiz sekula erretzaillia izan, eta jendia zigarrua erretzen ikustia etxata gustatzen, ez emakumia eta ez gizona; hori txarra da, eta neri gauza txarrak ez jataz gustatzen. Bizio bat da, alkohola dan bezela.

Gizonak zigarrua erretzia ez zagan gaizki ikusitta, baiña emakumiak erretzia pekatua zan. Akordatzen naiz ni umia nitzala, San Bartolomietan, kontzertua zagan plazan. Kotxe

bat etorri zan karretera jeneraletik (orduan herri barrutik pasatzen zan karretera), eta Plazan geratu zan. Matri-monixo bat urten zan, emakumia prakekin. Hori ere hemen sekula ez gendun ikusi, hemen beti goniakin. Ta, halako baten, andria zigarrua piztu eta erretzen hasi zan. Danok zorotuta, bueltia eman eta hari begira geratu giñan. Emakume elegantia zan. Baiña hemen inor ez zan ibiltzen prakekin, dirudunak ere ez.



[GURE BERBAK]

Kontzesiozko esaldixak (2)

Kontzesiozko esaldixekin jarraitzeko, aditz-partzipiua eskatzen daban beste egitura bat ekarriko dogu hona: -TU ARREN. Aditz jokatuakin erabiltzia ere posible da (*gaixorik dagan arren*), baiña askoz erabillixagua da gure artian aditz jokatugabia erabiltzia (*gaixorik egon arren*). Hona adibide batzuk:

-TU ARREN

Da holaxe juaten nitzan elizkizunetara; monjak frantsesak izan arren, euren kantuak eta euren gauzak polittak izeten ziran.

Bai, han mina zuluhan egon giñuazen, lau bat aldiz bai. (Bonbak) han gaiñetik jo arren, etxuek apurtuko haura, lodiera haundixa jaukak eta.

Ta gero, kanpoko abade bakoitzak zaukan obligaziva monagillueri eriala pagatzekua. Hogeta bost zentimo. Da askok "por aquí" egitten zeber, abadia izan arren.

(...) Baiña astakertenak haura esan arren, neri berdin zidan.

Berdia ondo dago, baiña aurreko karretera edarra egitten debenian, berdian kendu arren ba, pasiuhan jendia ta, mobimentua ta, kotxiak eta abarrak izango dira.

Jesus Mari Makazaga



Jakin

haizea dakiten orriak

50 Jakin GURE
URTEA

Harpidetzu zaituz eta oparia jasoko duzu
deituz: 943 218092
Idetuz: jakin@jakinquea.com
Ikusiz: www.jakinquea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro
Opariaz: 150 urteotako 700 zenbakiaz 1200 batan

MEMORIA LANTZEN JUBILATUEN EGOITZAN

ARGI IBILI ETA BURUA ERABILI

Ariketa fisikoak gorputza sasoiari mantentzen laguntzen digun bezala, memoria lantzeko ariketak burua bere lekuan mantentzen laguntzen digu. Adituek diotenez, gaztetan memoriak, adimenak... neuronek azken batean, lan gehiago egiten dute zahartzaroan baino. Hori dela-eta, duela bost urte memoria lantzeko saioak ematen hasi ziren Jubilatuen Egoitzan. Aurten 11 laguneko talde bat osatu da, eta ostegunero biltzen dira, ordubetez ariketa mentalak egiteko. Urrian hasi eta maiatzera arte luzatuko da ikastaroa. Sonia Ulazia da irakasleetako bat, eta berak kontatu dizkigu egitasmo honen nondik norakoak.



BOST URTE

MEMORIA LANTZEN

Eibarko Adindu enpresaren ekimenez jarri zen martxan memoria lantzeko egitasmoa duela bost urte. Sonia Ulazia da saioak eskaintzen dituen teknikarietako bat. Psikologia eta Pedagogian Lizentziatua da bera, eta gerontologian espezializatua dago. Berak esan digunez, burua martxan egotea oso inportantea da: "gimnasia mentala deitzen diogu ikastaro honi. Gorputza sasoiari mantentzeko jendea gimnasia joaten den bezala etortzen dira hona. Burua sasoiari mantentzeko ariketak egin behar dira". Sonaiek esan digunez, nagusiek denbora libre asko daukate, ez daukate buruhauste gehiegirik eta askotan, ez dute burua martxan jartzen: "gaztetan, lanagatik edo ikasketengatik, edo beste mila arrazoiengatik burua beti lanean egoten da, baina nagusitzen goazen heinean, gutxiago erabiltzen da. Eta gauza guztiak bezala, erabiltzen ez den aparatua izorratu egiten da".

MEMORIA LANTZEKO TEKNIKAK

Memoria lantzeko prozesuak hiru atal nagusi dituela kontatu digu Sonaiek. Lehengo informazioa jaso egin behar da, begietatik edo belarrietatik jasotzen da informazioa. Horretarako memoria bisuala erabiltzen omen da asko: "Errosario kallean zein denda dauden gogoratzeko bisualki bertan jartzea da inportanteeta. Atentzioa eta kontzentrazioa ere oso garrantzitsuak dira. Bigarren pausua jasotako informazioa buruan gordetzea da: "burua ordenagailu bat bezalakoa da



eta bertan antolatu egin behar da informazioa". Azken pausua, informazioa gogoratzea da, eta Soniak esan digunez, hauxe da zailena: "burua martxan jarri eta teknika desberdinen bidez, buruan gordetako informazio hori aurkitu egin behar da. Askotan artxibo egokia bilatzea kostatu egiten da".

Burua martxan jartzeko ariketa desberdin ugari egin daitezke. Soniak esan digunez, beraiek hizkuntzaren bitartez lantzen dute gehienbat: "Esaldiak, esaera zaharrak, hitzak... erabiltzen ditugu. Asoziazioa deitzen den teknikarekin, beraiek hitz edo ideia bat beste batekin lotzen dute eta horrela, gogoratu egiten dira".

Saio hauek Alzheimer gaixotasuna ekiditeko balio al duten galdetu diogu Soniari, baina esan digunez, ezin dira bi gauza nahastu: "Alzheimer gaixotasunak memoriari eragiten dio batez ere, baina hori baino gehiago da. Ezin da ziurtatu memoria lantzeagatik Alzheimer gaixotasunetik izango ez dugunik, baina gaixotasuna prebenitzen laguntzen du".

TALDE HETEROGENEOA

11 laguneko taldea osatu da aurten. 65 eta 76 urte bitarteko emakume eta gizonezkoak dira. "Batzuk hasieratik daude saioetan, beren kabuz etortzen dira, ez ditu inork derrigortzen eta oso fidelak dira", esan digu Soniak. Bestalde, oso talde heterogeneoa dela esan digu, baina beraien arteko harremana bikaina omen da: "maila akademiko oso desberdina daukate, baina ez daukate lehiakortasunik, batzuk besteari laguntzen dio eta oso ondo konpontzen dira beraien artean". Soniak aitortu digunez, "oso lan polita da, satisfazio handia ematen dit".

EGIN AL DITUZUE ETXKO LANAK?

15:30ak puntu-puntu agertu dira denak, eta irakaslea gelan sartzerako, bakoitza bere lekuan eserita zegoen. Gaurkoan Soniak ikasle bat gehiago eduki du aldamenear. BARRENEko kazetaria eseri da beraiekin, memoria lantzeko saio bat nolako den ikusteko.

Etxeko lanak eginda ekarri dituzte denek. Esaera zahar batzuk osatu eta kon-

testuan jartzea zen gaurko lana. Banan-banan hasi dira irakurtzen, batzuk erraza-goak ziren besteak baino, baina denen artean, esaldi guztiak osatu dituzte. "Akaso hemendik hiru astera esaldi hauek buruz esateko eskatuko digu irakasleak", esan du batek. "Ez da txarra", erantzun dio besteak, "gogoratzen bagara ez gabiltza txarto", gaineratu du hirugarren batek.

Gustura daudela igartzen zaie, eta halaxe kontatu digute: "lehen ez nintzen gauza askorekin gogoratzen, izena guztiak nahasten nituen. Orain, ordea, hemen ikasitako teknika bati esker, dena gogoratzen dut. Askizu auzoaren izena beti gaizki esaten nuen, orain aske hitzarekin gogoratzen naiz lehenengo eta hortik, Askizu berehala etortzen zait".

Berehala pasatu da ordubetea, konturatu gabe joan zaigu. Gaurkoan ere etxeko lanekin joan dira, baina pozik. Datoren asterako, hitz batzuk definitu behar dituzte, hori bai, hiztegiaren laguntzarik gabe. Tranparik egingo ote dute? Seguru ezetz.

[PROTAGONISTA]



Maritxu**Alberdi**

Azaroaren 1ean 100 urte bete zituen Maritxuk. Gabilondo arma enpresakoa zen bere familia. Elgoibarren bizi ostean, Bilbora joan ziren. Anaia Justino Athletic-eko jokalaria izan zen. Hau Argentinara joan zen bizitzera, eta gurasoak hil zirenean, Maritxu bereganatu joan zen. Urte dezente pasatu zituen bertan, eta handik Frantziara joan zen. Familia aberats batetako umeak zaintzen zituen. Eibarko izeba gaixotu zenean, bera zaintzera etorri zen. Azken urteotan Eibarko Egogain egoitzan bizi da. Leku askotan bizi arren, eibartar hizkera ez du oraindik galdu.

[NOTIZIA]

Zaborraren gaineko zergak %20an garestituko dira datorren urterako

Datorren urterako ordenantza fiskalak onartu ziren, besteak beste, joan zen asteko osoko bilkuran. Horien artean, zaborraren tasa izan da gorakada nabarmenena jasan duena. EAJ eta EA alderdien aldeko botoekin, %20an garestituko dira zaborraren gaineko zergak 2007an. Bestalde, Kirol Patronatuko kuotak %5 garestiago egongo dira datorren urtean. Hau ere, EAJ eta EAren aldeko botoekin erabaki zen. Gainontzeko zergetan IPCaren igoera aplikatu da, eta hauek PSE-EE eta PPren aldeko botoa izan zuten.

Emakumeen aurkako tratu txarrak

EAJk emakumeen kontrako tratu txarrak salatuzko mozio bat aurkeztu zuen. Alderdi guztiek aldeko botoa eman zuten



eta ahal duen neurrian, berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartu zuen Udalak. Azkenik, Einbiouko kideek, Fernando Bert presoaren egoera azaldu eta Udalaren solidaritatea eskatu zuten, baina osoko bilkurak ez zuten bozketarik egin. Pleno aretoan bildutako Ezker Abertzaleko jendearen haserre sorrarazi zuen honek.

[ZENBAKIA]

1.032

Kirol Patronatuko ikastaroetan 1.032 lagun ari dira parte hartzen une honetan. 10 urte bete dira Udalak kiroldegiaren gestioa hartu zuenetik. Orduan 1.000 bazkide zituen, eta gaur egun, 3.500 bazkidetik gora ditu. Aerobic, spinning eta pilates dira jende gehien gustatzen zaizkion ikastaroak.

[ARGAZKIA]



Azaroak 1, Santu Guztien Eguna. Jende askok eduki du jai egun honetan, eta batek baino gehiagok ez du jakingo zergatik. Beste askorentzat, ordea, egun garrantzitsua da egutegian. Hildako senideei bisita egiteko eguna da, kanposantura joan eta hildakoei lorak jartzeko eguna. Jende asko topatu dugu kanposantuan. Hala ere, badirudi tradizio hau gutxitzen doala, asko baitira senideekin oroitze kanposantura joateko beharrik ez dagoela uste dutenak. Askotan gertatzen den bezala, heriotzaren inguruan ere, ezin denok ados egon.

[MOTZ-MOTZIAN]

Danobat, Etxepe eta Kondia omendu zituzten enpresetan euskara zabaltzeagatik



Errepublikaren aldeko erreferenduma

Aurten II. Errepublikaren aldarrikapenaren 75. urteurrena dela-eta, Ezker Batua-Berdeak giza eta politika kontzientziazio kanpaina jarri du martxan. "Akabo esamesak" lemapean, Monarkiaren aurrean Errepublikak duen legimititatea aldarrikatzea da helburua. Euskal Herrian 50.000 sinadura bildu nahi dituzte. Horretarako ekintza desberdinak izango dira gure herrian: azaroaren 9an sinadura bilketa egingo da Plaza Handian, (18:30-20:00), hilaren 10ean Ezker Batuaren lokal berria inaurugatuko du Javier Madrazok Errosario kalean eta bertan, Errepublikari buruzko erakusketa jarriko da hilaren 17ra arte.

Bidezko Merkataritza

San Bartolome Parrokiako Misio Taldeak Bidezko Merkataritzaren dena ireki zuen atzo Merkatu Plazan, eta bihar arte egongo da zabalik. Goizeko 10:00etatik 13:00etara egongo da irekita.

Idurre Ramos Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Idurre Ramos izan da BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Gabi jatetxean bi laguntzako afaria irabazi du. Lehiaketan parte hartzeko 7505 zenbakira sms bat bidaltzearekin nahikoa da, BARREn egiten dugun galderari bai ala ez erantzunez.



Makina erremintaren sektorean euskararen presentzia areagotzen laguntzeko egin duten ahalegina eskertzeko, omenaldia jaso zuten Elgoibarko Danobat, Etxepe eta Kondia enpresek joan zen urriaren 26an IMHk antolatutako 30+10 Mintegian. Gaur egun enpresa askok dituzte euskara planak, baina Elgoibarko hiru enpresa hauek urte asko daramatzate beraien kabuz, euskararen alde lanean. Arrazoi hau hartu zuten kontuan IMHko arduradunek, eta urte hauetan guztietan eginiko lana saritzeko esker ona eman zieten.

80 entzule

Makina erreminta eta euskara lotzen zituzten 30+10 mintegira sektoreko jende asko gerturatu zen. Aholkularitza, Lanbide Heziketa ikastetxe, euskalgintza, udalaxe eta Administrazio publikoetako 80 lagun bildu ziren guztira. 22 hitzaldi desberdin entzuteko aukera izan zuten IMHra joan ziren entzuleek. Enpresa, sindikatu, aholkulari eta beste hainbatek beraien esperientziak kontatu eta produktu desberdinak aurkeztu zituzten. Erremintaren sektoreko enpresei euskarazko tresnak ezagutaraztea zen mintegi honen helburua.

Ertzainak sartu ziren joan zen ostiralean Kimetz Elkarte



Espainiako Auzitegi Gorenaren aginduz, Kimetz Elkartearen ondasunen inbentarioa egitera etorri ziren Ertzainak joan zen ostiralean Elgoibarrera. Arratsaldeko 18:00ak inguruan ertzain hiru furgoneta eta mendi ibilgailu bat agertu ziren Santa Ana kalean. Mieketak iraun zuen bitartean, "errepresioa ez da bidea" lemapean kontzentrazioa egin zuten zenbait heritarrek Kimetz Elkartearen kanpoko aldean. Partaide baten adierazi zigunez, Ertzaintzaren mieketak ezustean harrapatu zituen, eta tentsio une latzak bizi izan ziren.

Inkesta

13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek %93ak dauka sakeleko telefonoa.

Zertarako erabiltzen duzu sakeleko telefonoa?

UNAI USOBIAGA

Ikaslea
13 urte



“Ez daukat sakeleko telefonorik. Nota txarrak atera ditut eta gurasoek ez didate erosi. Nire lagun guztiek badaukate, eta nik ere nahi dut. Ea notak hobetzen ditudan.”

NORA ANTON

Ikaslea
14 urte



“Gurasoeri deitzeko, batez ere. Beraiek ere lasaiago egoten dira, edozein momentutan deitu ahal didatelako. Nire pagarekin ordaintzen dut.”

RUBEN IRIGOIEN

Ikaslea
15 urte



“Laguneri deitzeko. Orain dela gutxi erosi didate. Kostatu zitzaidan gurasoak konbentzitzea, baina orain ez dut gehiegi erabiltzen. Larrialdietarako ondo dago.”

ION CASADO

Ikaslea
14 urte



“Larunbatetan erabiltzen dut batez ere, lagunei deitu eta non dauden jakiteko. Elkarrizketa pribatuak edukitzeko ere, oso ondo dago eta edozein lekutan erabili daiteke.”

[BAI ala EZ?]

Santu Guztien Egunean kanposantura joateko ohiturarik ba al duzu?

BAI %18

“Bai. Ez dut gehiegi sinisten erlijioan, baina badirudi Santu Guztien Egunean han ditugun senideei lorarik ez badiogu jartzen, ez ditugula maite. Jendeak pentsatuko duenagatik joaten naiz.”

EZ %82

“Ez. Egia esanda, ez Santu Guztien Egunean, ezta urteko beste egunetan ere, ez naiz joaten. Nire senideetaz gogoratzeko ez daukat kanposantura joan beharrik.”

Datorren asterako.... **Lotinarekin ere, Realak galdu egin zuen pasa den jardunaldian. Entrenatzaile berriak aterako al du Realak zulotik?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Zumaiako Zelai Talasoterapian**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

www.talasozeelai.com

JAIOAKOAK



**Harri Ecenarro
Ariznabarreta**
[Urriak 6]
Guillermo eta
Miren Gurutze



**Iker Acevedo
Vargas**
[Urriak 4]
Sergio eta
Katerine



**Haritz
Lazarobaster
Muruamendiaraz**
[Urriak 21]
Juxe eta Garbiñe



**Garazi Aiarza
Odriozola**
[Urriak 10]
Edume eta Aitor

**Jon Moya
Mazoriaga**
[Urriak 10]
Aitor eta Naiara

**Ander Aizpurua
Faces**
[Urriak 3]
Gurutz eta Mertxe

HILDAKOAK

Celia Dosal • [82 urte] • Urriak 2
Gaizka Lopez de La Caba • [29 urte] • Urriak 6
Vicenta Eizagire • [86 urte] • Urriak 7
Jesus Arizabalaga • [68 urte] • Urriak 17
Txomin Osoro • [88 urte] • Urriak 17
Juana Barrutia • [57 urte] • Urriak 19
Antonio Alonso • [70 urte] • Urriak 20
Matilde Azkoitia • [86 urte] • Urriak 26
Beatriz Martinez • [94 urte] • Urriak 27
Anastasio Arrillaga • [94 urte] • Urriak 30
Ascension Garcia • [89 urte] • Urriak 31

EZKONTZAK

Aritz Garcia eta Dolores Rolo [Urriak 14]
J. Luis Urain eta M^o Aranzazu Mugerza [Urriak 16]
Jon Muñoz eta Aitziber Garcia [Urriak 13]
Hector Garrido eta Nerea Gabilondo [Urriak 21]
Asier Urresti eta Alaitz Osoro [Urriak 21]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

HH, LH eta DBHko irakaslea

ONINTZA RIVERO



1 Zergatik irakasle?

Gizarte Hezkuntza bukatu nuenean ikastetxe batean hasi nintzen lanean. Beti gustatu zait irakaskuntza, baina orduan konturatu nintzen handik jo behar nuela. Psikopedagogia eta Magisteritza egi nituen.

2 Zein adinetako ikasleak dira zailenak?

Bakoitzak bere zailtasunak ditu, baina DBHkoak dira okerrenak niretzat.

3 Nola lortzen da ikasleen errespetua?

Distantzia mantendu behar da, konfidantza eman, baina neurtuta, bestela, eskua eman eta besoa hartzen dizute.

4 Etxeko lanak egiten ez dituztenean zein aitzakia erabiltzen dute?

Nomalean egia esaten dute, ez dute aitzakiarik jartzen.

5 Suspentsoak jasotzea ala jartzea da zailagoa?

Uste baino zailagoa da suspentsoak jartzea. Azken batean, irakaslearen lana ikasleek azterketak gainditzea da.

6 Zer ikusten da irakaslearen mahaitik?

Dena. Berehala igartzen da nor dagoen urduri, nor ikasi duen...

7 Ikasle garaian gorroto zenuen ikasgaia?

Historia ez zitzaidan gustatzen. Zientzia alorreko ikasgaiak nahiago nituen, nahiz eta gero, letra mundutik jo dudana.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



MARIAN ALVAREZ ama



LEIRE BALADA alaba

GALDERAK

1. Telebistako saiarik gustukoena?

2. Gehien gustatzen zaizun kirola?

3. Noiz egin zenuen negar azkenekoz?

4. Autoa ala motorra?

5. Gorroto duzun janaria?

6. 10 urte barru?

7. Mendia ala hondartza?

8. Hotzaren kontrako erremediorik?

1. CSI, astero ikusten dut.

2. Igeriketa, baina ez daukat denborarik.

3. Duela gutxi, haserraldi baten ondorioz.

4. Autoa, eta furgoneta bada hobeto.

5. Paneka, ezin dut jan.

6. Berdin-berdin, lanean eta Elgoibarren.

7. Hondartza.

8. Berogailu ona edukitzea.

1. "Egin kantu", abestea gustatzen zait.

2. Eskolan egiten dugun soinketa.

3. Aspaldi, ez naiz gogoratzen.

4. Autoa.

5. Garbantzuak

6. Ikasten, andereñoa izan nahi dut.

7. Hondartza.

8. Txamarra potolo bat.

TXIKI inkesta

Zein teknika erabiltzen duzu ligatzeko?

Mikel Royo
10 urte

Kontu politik esan eta momentua heltzen denean, nerekin irtetzeko eskatuko nioke.



Olaia Irigoyen
10 urte

Beraren aurrean txuleatzeko zerbait egingo nuke eta oso atsegina dela esango nioke.




Julene Garzia-Abad
9 urte

Oso txarra naiz ligatzen. Gehien gustatzen zaion gauzara gonbidatu edo zerbait lurrera botako nuke berak jasotzeko.



Imanol Iturrino
10 urte

Gauza barregarriak eta maitagarriak esatea da ligatzeko teknikarik onena.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

'EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK'

CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:


barren@elgoibarkoizarra.com

elkarrizketa...

Elur Arrieta

ELUR ARRIETA, PERKUSIO JOLE ELGOIBARTARRAK, DUELA BI ASTE DEBUTATU ZUEN EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREKIN, DONOSTIAKO KURSAAL ARETOAN. MOMENTUZ, KOLABORATZAILE GISA HAUTATU DUTE, IAZ, POSTU HONETARAKO PROBAK GAINDITU ETA GERO. HORREZ GAIN, GAZTE ELGOIBARTARRAK, EKAINEAN EOSAREKIN BATERA, AITA MADINAREN ZENBAIT OBRAZ OSATURIKO BI DISKOREN GRABAZIOAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZAN ZUEN. ERA BEREAN, EOSAREN HARPIDETZA EGITARAUAREN BAITAN, BOST KONZERTUTAN JO BERRI DU ELURREK.

“Nire ametsa Euskadiko Orkestrako tinbalero izatea da”



Noiz erabaki zenuen zure etorkizuna musikaren esparrutik bideratu nahi zenuela?

Hamabost urterekin, musika ikasketei heltzea erabaki nuen eta halaxe, Errenteriarra joan nintzen, gradu bertaineko perkusio titulua ateratzeko. Sei urte igaro nituen hemen eta ondoren, maila goreneko perkusio ikasketen sarbide frogetara aurkeztu nintzen. Horrela 20 urterekin, Donostiako Kontserbatorioan maila goreneko perkusio ikasketei ekin nien. Gaur egun, perkusioko 3. maila egiten dihardut eta dena ondo bada, datorren urtean bukatuko ditut perkusio ikasketak. Euskadiko Gazte Orkestrako partaide ere izan naiz 5 urtez. Horrez gain, beste hainbat proiektu eta kontzertuetan ere, parte hartu dut: Andra Mari Abesbatzarekin, Orfeoiarekin, Filarmonika orkestrarekin...

Zer nolako sentsazioak bizi izan zenituen zure debutean?

EOSko musikariekin eta zuzendariarekin batera jotzeak, urduritasun apur bat sortarazi zidan, halako korapilo bat nuen sabelean eta baita adrenalina puntu bat ere. Neure buruari nik hor zer egiten nuen galdetzen nion. Publikoari dagokionez, hainbeste jenderen aurrean jotzeak, ez zidan presio gehiegirik eragin, aurretik ere, ikusentzule askoren aurrean jarduna naizelako.

Zergatik aukeratu zenuen perkusioa?

Beste gaztetxo asko bezala hasi nintzenezan, 7urterekin, ez nitzen oso kontziente, baina, orain, asko betetzen nauen musika tresna da. Edozein instrumentu ikasten, ezagutzen eta bere munduan murgilt-

BARREN



zen hasten zarenean, oso zabala dela ohartzen zara eta zure jakinmin hori areagotu egiten da. Nik oraindik, perkusioaren munduan gauza asko ditut ikasi, egin eta deskubritzeko.

Perkusio hitzaren baitan, zein musika tresna aurki ditzakegu?

Egia esan musika tresna honen barietatea oso handia da. Maila goreneko perkusio ikasketetan, esaterako, musika klasikoan eta garaikidean erabilpen gehien duten musika tresnak dira irakasten direnak. Lau multzotan sailkatzen dira: tinbal sinfonikoak, orkestrako errepertorioetan erabiltzen direnak, bibrafonoa eta multiperkusioa. Hitz urritan, XVIII. mendean bere jatorria duen, sistema europearrean oinarritutako irakas-kuntza eskaintzen da. Hala ere, herrialde bakoitzak bere musika tresnak garatu ditu eta, aldi berean, doinuak interpretatzeko modu desberdinak. Honenbestez, ideia orokor bat eduki behar duzu eta zentzu horretan prestatu behar zara, nahiz eta ez izan espezialista estilo jakin batean.

Musikari polifazetikoa zara, zein esilotan aurkitzen zara erosoan?

Ezingo nuke esan, estilo batean, beste batean baino gusturago sentitzen naizenik. Dena den, aitortzen dut, orkestra sinfoniko batean lan egitea gustatuko litzaidakela; ez agian, musika mota horrek gehien be-

tetzen nauelako, baizik eta lan baldintzak egokiak direlako esparru honetan. Era berean, nire ametsa egunen batean tinbaljole izatera iristea da, baina zaila da.

“Musika klasikoan normaltasun batean ezagutzera eraman behar da”

Batek baino gehiagok pentsa dezake, musika klasikoan eta beste edozein estilo ez direla bateragarriak. Zer deritzozu?

Musika mota oro entzuten duzun neurrian, aberasgarria da eta edozein estilok eskaini ahal dizu, beste musika esparru batean baliagarri eta erabilgarri suertatu daitkeen zerbait. Adibide ugari daude. Esaterako, Berlingo Orkestra Filamoniako tinbaljolea, Scorpions taldeko bateria jolea izan zen. Eta ikusi besterik ez dago, Berlingo Orkestrak zer nolako tradizio eta ospea duen. Hori denak, aurreiritziak baino ez dira.

Zure musika erreferenteak?

Ez daukat erreferente zehatz bat. Baten tokian, hamar badaude hobeto dela,

pentsatzen duen horietakoa naiz. Musika klasikoari dagokionez, barneraino iritsi zaidan musika eta era berean, ederra iruditu zaidana, Gustaff Maller izan da.

Kontzertuetan ikusentzuleen artean, jende gaztearen presentziarik ba al da?

Oso gutxi. Gainera, daudenak, musika ikasketak egin ohi dituztenak izaten dira edo musika kulturaren inguruan mugitu izan den jendea. Nire ustez, beste herrialde batzutan, askoz ere ohikoagoa da gazteak opera edo kontzertu batera joatea. Egoera honi sustraitik heldu behar zaio. Hasteko, gaur egun familietan ematen den heziketa eta pentsamoldea aldatu beharko litzateke. Eskoletan, txikitatik musika sustatu eta normaltasun baten baitan ezagutzera eman beharko litzateke. Musika eskolek ere, zeresan handia dute.

Zein aretotan jotzea gustatuko litzazuke?

Amsterdameko Auditorioan jotzea oso momentu hunkigarria izango litzateke niretzat. Aretok akustika bikaina duela diote eta arte aldetik ere oso antzoki ederra da.

Gehitzekorik?

Azken 2 mende hauetan perkusioa asko garatu da. Oso mundu interesgarria eta musikala da. Barietate handikoa, dibertigarria.

[IKAS KONTUAK]

"Marilo beti lo" antzezlanaren Udal Liburutegian

Datorren azaroaren 8an, "Marilo beti lo" ikuskizuna izango da Liburutegian, arratsaldeko 17:00etan. Marilo oso lotia da, beti dago lo, baina esna dagoenean, oso istorio politak kontatzen ditu. Horiek entzuteko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren umeei. Azaroaren 12an, berriz, "Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak" antzerkia izango da Herriko Antzokian, arratsaldeko 16:30ean. Txanogorritxoren ipuin klasikoaren moldaketa bat da.



44 lagunek eman dute izena Elgoibarko Izarraren "Euskara Errefortzuak" programan



Elgoibarko Izarrak laugarren urtez jarri du martxan "Euskara Errefortzuak" programa. Aurreko urteetan bezala, arrakastatsua izan da ikasturtearen hasiera, 44 haur eta gaztetxok eman baitute izena. "Euskara Errefortzuak" programaren helburua euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haur eta gaztetxoei laguntza eskaintzea da. Programa honen bidez, haur eta gaztetxo hauek ikastetxez kanpo euskara ikasteko aukera izango dute, eta baita, euskaraz hitz egiterakoan erraztasuna lortzeko ere, modu dinamiko eta ludiko batean.

Bi motatako eskaintza

"Euskara Errefortzuak" programa 2003-2004 ikasturtean jarri zen martxan eta jada lau urtez dihardu oso erantzun eta emaitza onekin. Aurtengo ikasturtean bi eratako eskaintzak daude: 5-9 urte bitarteko haurrentzat, batetik eta Elgoibarren bi urte baino gutxiago daramaten 10-16 urte bitarteko etorkinentzat, bestetik. Euskaraz hitz egiterakoan erraztasunik ez dutenekin 6 talde osatu dira. Etorikinen taldea epe laburrean martxan jartzea espero dute. Saiok urriaren bigarren astean hasi ziren eta maitatza bitartean jarraituko dute.

[IRTEERAK]



Ikastolakoak Aiako Harrietan

Elgoibar Ikastolako DBH3 eta 4. mailako ikasleak Aiako Harrietako parke naturalean izan ziren. Inguruneaz gozatzearaz gain, Euskal Herriko hainbat paraje ezagutzeko eta elkarbizitza zituen helburu irteera honek.



Herri Eskolakoak Sesiarten

Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Sesiartera egin zuten ikasturteko lehenengo irteera. 90 lagun elkartu ziren guztira. Eguraldi ona zegoen arren, haize bortitzaren ondorioz ezin izan zutela gailurreraino iritsi kontatu digute.



BH Institutokoak Iparraldean

Elgoibar BH Institutoko Batxilergoko 2. mailako ikasleak Iparraldera egin zuten irteera, bertako kultura eta euskalkiak ezagutzeko asmoz. Hendaiako Abadia jauregia bisitatu eta Donibane Lohitzunen bazkaldu zuten.

ZINEMA ETA KOOPERAZIO EMANALDIA

Indigenek egindako fikzio eta dokumentalak ikusgai Kultur Etxean

Aurten, Mugarik Gabe, gobernuz kanpoko erakundearen eskutik eta Zine eta Lankidetzaren erakustaldia- ren baitan, herri indigenek egindako ikusentzunezko lanak izango ditugu ikusgai azaroaren 6tik 9ra bitartean. Lekua, kultur etxeko hitzaldi aretoa izango da eta emanaldiak gaueko 20:30ean hasiko dira.

Saio hauetan, herri indigenek argi uzten dute, zein den, beraien mundu ikuskerak, kultura eta nortasuna. Modu honetan, maiz, globalizazioaren ondorioz, mende- baldeko komunikabideek igortzen dituzten mezu eta irudi estereotipatuak tarteko, gure ikuspegitik kanpo geratzen diren beste garapen eredu eta kultura batzuk ezagutarazi nahi dituzte. Fikzio eta dokumental hauen egileak, Bolivia, Mexiko,



Zeelanda Berria, Kanada, Peru, Argentina, eta Brasileko indigenak dira eta aipaturiko herrialdeetako errealitate eta gertakariak



azaltzen dituzte beraien lanetan. Guztira, hamaika filme izango dira ikusgai, lau egunetan banatuta.

"Hitzak egin gaitu ezer" erakusketaren aurkezpena



Pasa den astelehenean, herritar ugari hurbildu zen "Hitzak egin gaitu ezer" bertso erakusketaren aurkezpen ekitaldira. Udaleko ordezkarienez gain, Bertsozale elkarterko Unai Elizasu bertsolaria eta Uxue Alberdi, elgoibartarra aritu ziren aurkezle eta bertsolari lanetan. Erakusketa honen bidez, bertsolaritza gizarteratzeko era asko daudela

erakutsi nahi da. Gisa berean, euskararen normalkuntzan eragin nahi da. Erakusketa herritar guztiei zuzendua dago eta lehen zein bigarren hezkuntzako ikasleek, bisita gidatuak egiteko aukera izango dute. Azaroaren 12ra arte zabalik izango da erakusketa, Kultur Etxeko erakusketa aretoan eta ohiko ordutegian.

"El Caserio" zarzuela

KJesus Guridiren obra ezagun hau Ensancheko Masa Koral abesbatzaren eskutik entzungai izango da datorren ostiralean, azaroaren 10ean, Herriko Antzokian eta gaueko 22:00etatik aurrera. Bilboko koru talde hau, 1903. urtean sortu zen eta orduetik emanaldi lirikoak interpretatu ditu eta zarzuela musika generoan aritu da. Horren adierazgarri, 1960ko hamarkadan, estatu mailako aurreneko sariak eskuratu zituen Torrelavega kantabriar herrialdean ospatzen den zarzuela lehiaketan. "El Caserio" obra hiru zatitan banatzen da eta hamalau abeslariz osatua dago errepertorioa. Kontzertu honetarako sarrerak aurrez salgai egongo dira Kultura sailean, 8,5 eurotan.



ESKUBALOIA

Tecnifuelle eskubaloi taldea Euskadiko Txapelketako lidergoan

Jokatutako partida guztiak, seitik sei, irabazi ditu Tecnifuelle senior mailako Eskubaloi Taldeak. Denboraldi hasiera aparta egin dute Jose Manuel Ruiz entrenatzailearen aginduetara dauden mutilek, eta lidergoa, merezitako saria izan da.

Urolaren aurka joan zen asteburuan jokatutako azken partida 25 eta 28 irabazi ostean, 150 gol sartu dituzte denora orain arte jokatu diren sei jardunalditan. Jasotako golak, berriz, 128 izan dira. Datuei errebaso bat eginez gero, orain arteko arrakasta defentsa lanean oinarritu dutela ondoriozta daiteke, gol gutxien jaso dituen ligako 3. taldea baita Tecnifuelle. Egia auzoko donostiarrak daude sailkapeneko bigarren postuan, elgoibartarrendik 3 puntura.

Denboraldia luzea da eta lehia hasi besterik egin ez den arren, iazko 3. postua hobetzea dute buruan txuri-gorriek. Izan ere, lehen bi sailkatuek jokatzen dute igoera fasea. Duela hiru urte 5. postuan sailkatu ziren seniorrak, duela 2 ur-



te 4. postuan, eta iaz, aipaturiko 3. postuan.

Hortaz, progresio matematikoak bere horretan jarraitzen badu badu, igoera fa-

serako sailkatzea tokatzen zaie aurren. Kirola eta matematikak, ordea, ez dira beti ondo uztartzen, behin eta berriz errepikatzen denez.

Lanbro

Pintxoetan sukera zabala

13, MUGURUZA, 7 Tel: 943 74 16 76

Lanbro

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater kombina-**

Astehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

ARETO FUTBOLA

Gipuzkoako areto futbol selekzioak Insausti eta Perez elgoibartarrak deitu ditu



Imanol Perez



Ekaitz Insausti

Ekaitz Insausti eta Imanol Perez 18 urtez azpiko Gipuzkoako areto futbol selekzioarekin jokatzeko deituak izan dira. Debarrena Elgoibar-Eibar klubean jokatzen dute bi gazte hauek. Gipuzkoako selekzioko hautatzailea areto futbol elgoibartarraren aspaldiko ezagun bat da: Ion Pozuelo eibartarra, hain zuzen ere. San Pedro F.S. (klubak aurrez zuen izena) klubeko talde nagusiko entrenatzailea izan zen Pozuelo urte luzetan. Eibartarraren agindupean lortu zituen, Elgoibarko areto futbolak lorpenik arrakastatsuenak, berarekin igo baitziren, besteak beste, Nazional B mailara, sekula egon diren mailarik garrantzitsuena. Orain, Pozuelok, Gipuzkoako 18 urtez azpiko selekzioko hautatzaile gisa hasi du ibilbide berria. Jokalari gazteek eskertuko dute eibartarrak areto futbolearen bereganatu duen esperientzia.

Deba ibaiaren sorburuetara izango da Morkaikoren irteera

Udazkenaren bihotzean, Deba Ibaiaren sorburuetara mendi irteera antolatu du Morkaiko M.E.ak azaroaren 12rako. Araban mendatetik, "Dorletaren Ama"ren aldaretik abiatu eta Elgea aldera egingo dute mendizaleek. Haize errota erraldoiak albo batera laga eta Degurixa aldeko paraje ederretara joko dute gero. "Urbia Txiki" izena ondo merezia daukan txoko honetan tripa bete, eta Andarto (1.105 m.) mendia igoko dute. Aizkorriko mendilerroa eta Urkulu urtegia ikusten dira bertatik. Araotzen bukatuko dute txangoa.



Elgoibarko Xake Txapelketa martxan da

Joan zen urriaren 27an hasi zen Elgoibarko Xake Txapelketa. Barikuero jokatuko dira partidak Elgoibarko Xake Taldeak Pista Beltzean duen lokalean, 19:30etik aurrera. Txapelketa hasita badago ere, posible da oraindik parte hartzea, bertan agertzearekin nahikoa da. Ligaxka eran,

denak elkarren aurka, jokatuko da Txapelketa eta partida azkarrak izango dira, gehienez 10 minutukoak. Irabazlea 8 jardunalditan puntu gehien eskuratzen dituen izango da. Bestalde, ostiralero, 18:00etatik aurrera haurrentzako xake klaseak emango dira.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Elgoibar 1 - Lagun-Onak 0 (1. erreg.)
 Hondarribia 1 - Elgoibar 2 (Jub.)
 Elgoibar 9 - Ikasberri 0 (Kad.)
 R. Sociedad 9 - Elgoibar 0 (O. Inf.)
 Real Union 1 - Elgoibar 1 (Inf. Txiki)
 Urki 0 - Elgoibar 1 (Neskak)
 Elgoibar 0 - Lagun Onak 0 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Goierrri 5 - Kenci 1 (Euskal Liga)
 Soloasten Lazkao 5 - Kenci B 4 (2. maila Gip.)
 Elgoibar 9 - Aloña Mendi 7 (Jub.)

ESKUBALDIA

Urola 25 - Tecnifuelle 28 (Senior mut.)
 Lojantzi 20 - Zuazo 18 (Senior nesk.)
 Escolapios 35 - Pneumax 16 (Jub. mut.)
 Escolapios 42 - Tecnomeca 26 (Kad. mut.)
 Bera Bera 22 - Cometel 13 (Jub. nesk.)
 IMH 9 - Aloña 15 (Kad. nesk.)
 Aloña Mendi 2 - Olalsa 32 (Inf. nesk.)
 Aterpe 10 - Bergara 4 (Inf. nesk.)
 Arrate B 11 - Hotel Txariduna 9 (Inf. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 4
 13:00 Elgoibar - Zarautz (Inf. Txiki)
 Domekia, 5
 12:00 Elgoibar - Arrasate (O. Inf.)
 16:00 Elgoibar - Amaikak Bat (Neskak)

ESKUBALDIA Kiroldegian

Zapatua, 4
 13:00 Olalsa - Aiala A (Inf. nesk.)
 17:30 Cometel - Gasnalsa (Jub. nesk.)
 19:00 Tecnifuelle - Askartza (Senior mut.)
 Domekia, 5
 11:15 Tecnomeca - Egia (Kad mut.)
 12:45 Pneumax - Egia (Jub. mut.)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapatua, 4
 16:00 Elgoibar - Unta Ibarreko (Euskal Liga)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 10. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 06/07

Jokalaria	Puntuak
1. Iker Martinez	11
2. Navarrete	9
3. Amiano	7
4. Arruti	6
5. Morais	5

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai Erretxindin. Altxariekin, 3 logela, egongela, jan-gela, komuna, 2 terraza eta trastelekua. Eguzkitsua. **680707639**
- ▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko moduan. Etxeko argazkiak: www.esnips.com/web/etxepolita
660 884060

- ▶ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela. egongela, sukaldea, komuna, trasteroa, berogailua. Berritua. **628904891**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. 88m². Berritua, altxariekin, ganbara. Kanpoaldera, eguzkitsua. 202.000 euro. **659 553 802**
- ▶ Etxea salgai Errosario kalean. 80m². Merke. **695783092**

ALOKAIRUA

- ▶ Mendaron, Azpilgoeta auzoan etxebizitza alokatzen dut. 3 logela, egongela, 2 komun, garajea, trasteroa. Dena kanpora. **943 013328 (Manoli)**
650953764 (Ramon)
- ▶ Bi logela hartuko nituzke alokairuan. **943 74 88 83**
- ▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa. **666032715**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea,
komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Bizitzera sartzeko prest.
943 03 38 44
686 62 21 92

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Lokala salgai Mendaron, Mendarozabal kalean. **635733150**
- ▶ Lokal txikia alokatzen dut. 18 urtetik gorako neskontzat. **667838858**
- ▶ Garajea alokatzen da San Roke Sean. **943 74 11 61**
- ▶ Garaje itxia salgai Jausoron. **686 22 44 38**

[AUTOAK]

- ▶ Kawasaki ZX6R Ninja motorra salgai. 3.600 euro. Motor berria, 8.000km. **690 857510**
- ▶ Ford Fiesta autoa salgai. Tuneatua. **664606102/617491332**
- ▶ 125cc-ko errepideko motorra salgai. Daelim Roadwin 2006. Berria, 2.000km, errebisioa pasatu berri, aseguru 2007ko maiztera arte. **653735849**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Janari denda bateko altxari guztiak saltzen dira. **943743420 (13:00-15:00)**
- ▶ Untxartak (huroiak) salgai. Merke. 100 euro. **658740788**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **620434550**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **646 821 678 (Lucia)**
- Emakumea nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. **638716987**
- Mutila elektrikari moduan lan egiteko prest. **638716987**
- Emakumea lanerako prest. **943 530130**
- Emakumea fresadora edo egiaztagailuan lan egiteko prest. Ikastaroak egin ditut IMHn. **639423493**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. **639423493**
- Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu... **671167050**
- Emakumea lanerako prest. **943531270**
- Emakumea lanerako prest. **686617930/943530130**

- Emakumea garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. **699609190**
- Neska lanerako prest. **630706181**
- Mutila lanerako prest. **680280791**
- Neska lanerako prest 10:00etatik 17:00etara. **665129877**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Orduka. **Jackeline**
943530803/676623843
- Neska lanerako prest. **686617930/943530130**
- Ingeles klaseak ematen ditut, maila guztiak. 18 urtetik gorakotzat, one to one, profidency. **606733850**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. **943 742201**
- Neska eskaintzen da goizez etxe eta portalak garbitzeko. **943 742827**

ESKAINITZA

- Kamareroa behar da. **943254366**

- DBHko ikasleak matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak hartuko lituzke. **943742199**
- Kamareroa behar da. Esperientziaduna. Kontratua eskaintzen da. **615723480**
- Mekanikaria behar da muntaiak lanetarako. **699014349**
- Elgoibarko kafetegiri baterako neska behar da. Astelehen-ostiral, 12:30etik 15:30era. **943741416 (9:00-16:00)**
- Kamareroak behar dira asteburuetan marxa taberna batean lan egiteko. **678158015**
- Jubilatuentzako tabernan lan egiteko kamareroak behar dira. Jardunaldi erdia, adinak ez du axola. **678158015**
- Mendaroko kafetegirako sukaldaria behar da. **943030150**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. **943030150**
- 1. edo 2. mailako ofizial soldatzailea eta muntatzailea behar da. **699537598**
- Plegatzailea behar da. Planoen ezagupenarekin. **699537598**

- Tituludun erizainak behar dira Elgoibarrerako. **609318192/943466150**

ABISUAK

- Elgoibarko gasolindegian telefono mugikorra utzi du norbaitek. **943 74 43 22**
- Txakurra galdu da Elgoibar inguruan. Hispanier-breton ehiza txakurra. Txuria eta mantxa naranjak ditu. Lur, emea da. **607843027/652718479**
- 1942an jaiotakoan bazkaria azaroaren 11n Sigma jatetxean. Interesatuek azaroak 9a baino lehen sartu beharko dituzte 40 euro Euskadiko Kutxako kontu honetan: **0071038221**
- Urrezko hartz txiki bat galdu nuen urriaren 17an. Balore sentimental dauka. **628564011**
- Iiondo Kiroiak dendan bakero-dun kazadora bat utzi du norbaitek. **943740956**
- San Migel auzoko elizan beturreko batzuk aurkitu dira. **943743109**

[ZORIONAK]



► Zorionak **Josul** Gaur 7 urte bete dituzulako. Ondo pasa! Muxu haundi bat familiako guztien partez.



► Zorionak **Unai** Zure 2. urtebetetzean. Muxu haundi bat familiako partez. Bereziki, Rene eta Claudiaren partez.



► Zorionak **Danel** Gaur urte bat egin duzulako. Muxu haundi bat, etxe-koen eta bereziki, Anaren partez.



► Zorionak **Noral** Zure urtebetetze egunean. Familiako partez.



► Zorionak **Nurial** Azaroaren 5ean, urteak beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



► Zorionak **Lorel** Atzo, 3 urte egin zenituelako. Etxeko eta anaia Aitorren partez.



► Zorionak **Mirentxu** 9 urte haundi bete dituz! Zorionak etxeko danon partez.



► Zorionak **Araitzi** Gaur, urte bat egin duzulako. Familiako partez.



► Zorionak **Javier Oregil** Gaur 8 urte egin dituzulako. Etxeko partez.



► Zorionak **Unai** Igandean, 6 urte beteko dituzulako. Familiako, eta bereziki areba Sararen partez.



► Zein ondo eramaten dituzun 40-1 bete berriak! Beste egun on bat igaro dezazula. Otarra bete muxu!



► Ez zaizu berehalakoan, 5.ena iritsi, haundi izateko txiki, falta zaizu gitxi, musutxo 1 edo 2 nahi dotsuguz utzi! Zorionak pitxitxi!!



► Zorionak **Suyail** Bihar, 3 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



► Zorionak **Anel** Gaur, 7 urte bete dituzulako. Etxeko guztiak eta bereziki, Mariaren partez.



► Zorionak **Ana** eta **Iban!** Zuen ezkontza egunean, ondo pasa dezazuela. Familia eta lagunren partez.



► Zorionak **Aintzane** eta **Juanan!** Bihar zuen ametsa egi bihurtuko delako. Mendaroko kuadrilakoak listo gaude zuekin egun alai-alai ospatzeko. Muxuak!!



www.elgoiBAREN.net

Elgoibarko berri izateko, harpidetu zaitez

www.elgoibarren.net ALBISTE BULETINERA.

Egunero bi edo hiru nazia jasoko dituzu.

Harpidatu teknika web orrian daukazu ALBISTEAK E-POSTAZUKA > T7FK atalera.

[OKINDEGIA]



5 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 3 Etxeberria (Santa Ana)
 - 4 Fernandez (* Goizez Etxeberria Erosario)
 - 5 Fernandez
 - 6 Yudego
 - 7 Zabaleta
 - 8 Etxeberria (Erosario)
 - 9 Ibañez
 - 10 Bidasolo

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarra.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
 Larrialdiak 943 46 11 11
 Planning-a 943 74 29 50
 Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
 D.YA (anbulantzia) 943 46 46 22
 Gurutze Gorria 943 74 38 64
 Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
 Odol Emailak 943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
 Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
 Hirigintza 943 74 43 84
 Epaitegia 943 74 16 30
 Haziena 943 74 44 14
 Mendaroko Udala 943 03 32 82
 Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
 Udaltexea 943 74 10 50
 Udaltzaingoa 943 74 13 94
 Debemen 943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 74 04 42
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 74 08 98
 Bizkaibus 902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria 943 74 41 12
 Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
 Kirolegia 943 74 44 15
 Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
 Liburutegia 943 74 35 25
 Musika Eskola 943 74 21 45
 Mintxeta 943 74 43 15
 Parrokia 943 74 08 42
 Postetxea 943 74 15 47
 Gazte Informazioa 943 74 14 61
 KZ gunea 943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
 Zaharren Biltokia 943 74 05 26
 Egunekeo Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua • Arreiturre 943 74 80 19
 •Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA (UZTAILA)

Astegunak:
 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00,
 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00,
 20:45

Larunbatak:
 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10,
 18:45, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00,
 20:45

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR (UZTAILA)

Astegunak:
 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30,
 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
 ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuk eta jaiegunak:
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
 21:55.

Asteburua eta jaiegunak:
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[3 BARIXAKUA]

19:30 "FERNAN ETXERA"

MANIFESTAZIOA

Plaza Handitik hasita

Ondoren, Akanpada-baraualdia

[4 ZAPATUA]

12:30 KONTZENTRAZIOA

Kimetz Elkarteko miaketa salatzekeo

Plaza Handian

[5 DOMEKIA]

10:00 MENDI IRTEERA

Saibira (932 metro, Urkiola)

Irteera: Ikastolatik

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

[6 ASTELEHENA]

20:30 II. ZINEMA SOZIAL

EMANALDIA

Filmak: "Raweke Ira/manipulazio genetikoak" (58 min.); "Wichi" (24 min.) eta "Egun bat herriskan" (40 min.)

Kultur Etxeko Hitzaldi aretoan

SINOPSISIAK

«Kutsidazu bidea»



[7 MARTITZENA]

20:30 II. ZINEMA SOZIAL EMANALDIA

Filmak: "La tierra es nuestra esperanza, la resistencia al Plan Puebla Panama" (29 min.); "Beldurra gaindituz" (55 min.) eta "Palabras Zapatistas contra la injusticia" (34 min.)
Kultur Etxeko Hitzaldi aretoan

[8 EGUAZTENA]

17:00 "MARILO BETI LO" IKUSKIZUNA

Taldea: Behibis
Udal Liburutegian
Antolatzailea: Kutxa

20:30 II. ZINEMA SOZIAL EMANALDIA

Filmak: "Johnny Greyeyes" (76 min.); eta "Emakumearen bizitza erresistentzia-borroka" (19 min.)
Kultur Etxeko Hitzaldi aretoan

[9 EGUENA]

19:00 JARRERA SOLIDARIOAK HITZALDIA

Hizlaria: Gemma Agirregomezkorta Zaharren Biltokian

20:30 II. ZINEMA SOZIAL EMANALDIA

Filmak: "Heriotza Sionen" (25 min.); "Jokaerak aldatuz: ekitatea sortuz" (50 min.) eta "Fusil metralla el pueblo se calla" (17 min)
Kultur Etxeko Hitzaldi aretoan

[10 BARIXAKUA]

22:00 "EL CASERIO" ZARZUELA

Masa Coral del Ensanche Herriko Antzokian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Kutsidazu Bidea Ixabel»

3, barixakua: 22:15
4, zapatua: 19:30-22:15
5, domekia: 19:30-22:15
6, astelehena: 21:30
"Jorge El Curioso"
5, domekia: 16:30
«Algo parecido a la felicidad» (Z.K.)
9, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«La Dhalia Negra»

3, barixakua: 19:30-22:15
4, zapatua: 17:00-19:30-22:15
5, domekia: 17:00-19:30-22:15
6, astelehena: 19:30-22:15
7, martitzena: 19:30-22:15
8, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«El Diablo viste de Prada»

3, barixakua: 19:30-22:15
4, zapatua: 17:00-19:30-22:15
5, domekia: 17:00-19:30-22:15
6, astelehena: 19:30-22:15
7, martitzena: 19:30-22:15
8, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

»

«Algo parecido a la felicidad» (Z.K.)

Zuzendaria: Fernando Bernués, Mireia Gabilondo.
Antzezleak: Mikel Losada, Ainere Tolosa.
Komedia naturalista baten aurrean gaude, zuzendaria-riaren hitzetan "erromantiko-linguistikoa" dena. Komikotasun handiarekin, hiriaren eta baserriaren arteko kontrastea nabarmentzen dute bertan. Karaktere arai haien eta pertsonaiaren sineskortasunak gure burua jela gutxiko historiako une jakin bati egiten dio referentzia, eta filmak gure memoria kolektiboaren gainean eragiten du bat berreskuratu nahi du horrela. Azken 15 urtean euskaraz idatzi den libururik salduena izan zen.



Zuzendaria: Bohdan Sláma.

Antzezleak: Pavel Lika, Tatiana Vilhelmová.

Monika, Tonik eta Dasha haurtzaroko lagunak dira. Hiri industrial baten kanpoaldeko auzo txiro batean bizi dira, herrialdeko lantegi kimiko handienetik gertu. Monika supermerkatuan lan egiten duen neska jator eta bihotz onekoa da. Ameriketako Estatu Batuetara joan den mutil lagunak berarekin elkartzeko hegazkin txartela noiz bidaliko zain bizi da, alde egiteko. Tonik, bien bitartean, Monikaz maiteminduta dago. Eta Dasha, bi umetxoren ama da. Azken honek burua galdu eta ospitale psikiatriko batean sartzean dena aldatuko da.

Atzera hegira



1936 . urte inguruko erretratu zahar hau **Itziar Ajuriak** laga digu. Gerrate Zibilaren testu-
guruan ateratako erretratu da. Argazki honetan ageri diren hiru apaizak anaiak eta
markinarrak ziren. Ezkerretik eskumara; **Don Txomin, Don Celestino eta Don Alberto**
Onaindia. Don Celestino Elgoibarko apaiza izan zen zenbait urtetan, eta Txomin Radio Euskadiko korres-
pentsala Parisen. 70 urte bete dira aurtan fusilatuak izan zirenetik. Itziarrek esan digun bezala, “egun batetik
bestera eraman zituzten, eta ez genituen gehiago ikusi”. Frankoren kontrakoak ziren, eta garai hartan ez zen
erraza Frankoren kontrakoa izatea. Ondarretako kartzelan egon zen Don Celestino, eta handik irten ondoren
fusilatu zuten Hernaniko kanposantuko atean. Itziarrek esan digunez, oraindik ez omen dira hiru apaiz hauen
gorpuak agertu.



ESKERTZA

2006ko urriaren 27an hil zen
Anastasio Arrillaga Lizundiaren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





disart
diseinu estudioa

-DEKORAZIO AHOLKULARITZA

-PLANO TEKNIKOAK

-BEZEROAREN AURREKONTUARI
EGOKITUTAKO PROIEKTUAK

-GREMIOEN KOORDINAZIOA

-ALTZARIAK

Pedro Muguruza Etorbidea 5 Elgoibar
Tel/fax: 943 743245
disart@disartestudio.net
www.disartestudio.net



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

ZARZUELA

"EL CASERÍO"

Azaroak 10, ostirala
22:00etan

(Iraupenagatik lehenago hasiko da)

Herriko Antzokian

ANTZERKIA

TXANOGORRITXO

eta marrubi zaporeko gaztainak

Azaroak 12,
igandea
16:30ean

Herriko Antzokian



GALDER PEREZ

JUANJO LLERENS

